

## 2017ko AURREKONTU PROPOSAMENAREN MEMORIA

2017ko aurrekontuen proposamen hau da Hernaniko Udalaren erakunde autonomo honek Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak izenarekin aurkeztuko dituen lehena. Izen eta irudi aldaketarekin gatoz, baina orain arteko lana oinarri eta esperientziatzat hartuz eta datorren urtera begira dauzkagun erronkei aurre egiteko prest. Jarraian datorren dokumentuan zehazten den aurrekontua izango da horretarako tresna bat.

2017ko aurrekontu proposamen hau, Gobernu Taldeak inbertsio sozialean murrizketarik ez egiteko hartutako konpromisoari fin eusten dio. Hernaniko Udalaren datorren urteko aurrekontuan gastua handitu eta inbertsiorako gaitasuna murriztu arren, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeari egindako ekarpenean ez da murrizketarik izango.

Aurten gertatu moduan, datorrenean ere Espainiako Gobernuaren aurrekontuen inguruan momentuz daukagun informazioan oinarrituz, Erakundeak zuzenean kontratatzen dituen langileen soldataren %1eko igoera aurreikusi dugu.

Datorren urtea, aldaketa urtea da Zerbitzu Sozialen arloan. 2016ko abendutik aurrera Gizarte Zerbitzuen Legeak eta Zorroaren Dekretuak jasotzen dituen prestazioek indarrean egon behar dute. Horren arabera, adinekoei zuzendutako zerbitzu berri bat jarriko dugu martxan: autonomia dutenen eguneko arreta zerbitzua. Zerbitzu hori martxan jarri ahal izateko ezohiko diru-sarreraren bat izango da, baina ez dugu aurrekontu hauetan islatu, ez baitigute zehaztu zenbatekoa izango den. Horrekin lotuta esan beharra dugu, lege beraren arabera Zahar Egoitza eta Eguneko Zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratu behar direla. Hernanikoen kasuan, 2019ra arte ez da aldaketa hori emango, horrek suposatzen digun esfortzu ekonomikoarekin. Gure kezka Aldundiko arduradunei jakinarazi diegu. Hala ere, Gobernu Taldeak argi duena da zerbitzuek gure esku jarraitzen duten bitartean lehentasunekoak izango direla eta eta pertsona guztiei aukera berak ematen dizkienak. Egoera honek ez du zerbitzuen kalitatean eragingo. Bi zerbitzuen kasuan, plaza guztiak beteak daude.

Adineko pertsonak eta menpekotasunen bat dutenak lehen mailan daude gure politiketan eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua da beraiei zuzendutako zerbitzuetako bat. Honek duen eskaerari erantzuteko, 2016ko aurrekontuarekin alderatuz, %6 inguru igo dugu zerbitzu honetara bideratutako partida datorren urterako.

Horrekin batera, aurten sortu dugun *Pertsona Jubilatuena Mahaiaren* laguntzarekin osatzen ari garen Gida argitaratu eta bidaliko dugu etxetara, pertsona hauei zuzenduriko eskubideen eta herriko baliabideei buruzko informazioa helarazteko.

Adingabekoen eta euren familien ongizatea ere lehentasun dira guretzat. Horren adierazle da programa hauek garatzeko 2016an egindako lanketa. Hauei zuzenduta dauden programetan ere %6 inguruko igoera sartu dugu.

Hasieran aipatu moduan, aurrekontua gure zerbitzuak aurrera eramateko tresna bat da, baina ez bakarra. Hernanin ditugun erronkei Erakunde honen parte diren profesionaleri esker egiten diegu aurre. Horri esker, hernaniarrek konfiantzazkoak dituzte eskaintzen ditugun zerbitzuak. Denon artean Hernani hobetzeko lanean ari gara.

Hernani, 2016ko azaroak 11

Xabier Lertxundi Asteasuñzarra  
Presidentea

